

Eskemak egiten

Ba al dakizu zer den eskema bat?

Testu baten edo batzuen informazioa adierazten duen marrazkia edo grafikoa da; informazio horren ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak jasotzen dituena.

Ikasteko teknika ona da begirada batez gai bati buruzko informazioa jasotzen dugulako modu antolatu batez, erreza izanik horrela errepasatzeko. Horrez gain, eskema egiteko aldez aurretik egiten den lana oso garrantzitsua da informazio hori ulertzeko, antolatzeko, erlazionatzeko, sintetizatzeke,...

Eskema batek gorputzeko hezurduraren antzeko eginkizuna du. Hezurdurak gorputzari eusten dion moduan, eskemak testu baten oinarritzko egitura biltzen du. Bere ideia nagusiak aurkezten ditu era labur eta grafikoan, hitzak, irudiak edo ikurrak erabiliz, eta alderki garrantzizkoenak bakarrik aipatuz.

Nola egiten ote da?

Pauso batzu jarraitu behar dira poliki-poliki:

- Hasteko, testua behin **IRAKURRI** eta **ULERTU** egin behar da.
- Ondoren, **PENTSATU** egin behar duzu, eskema egin baino lehen behar-beharrezkoa baita testuaren azpimarraketa egitea.
- Testua berriro irakurri, paragrafo bakoitzaren **azpigaia eta ideia nagusiak** aurkitu behar dituzu **eskema** egin ahal izateko. Horrela egin dezakezu:
- Azpigaia aurkitzeko, interesgarria da paragrafo bakoitzari **galdera bat egitea**:
 - Lehenengo paragrafoak, zein galderari erantzuten dio?
 - Zein giltza-hitza jarriko zenuke alboan?
- Paragrafo bakoitzaren ideia nagusiak **AURKITU** behar dituzu orain, azpigaia horri dagozkionak noski, eta informazio hori modu laburrean adierazten dituzten hitzak (hitz-gakoak edo gitarra-hitzak) **HAUTATU** eta arkatzez azpimarratu.
- Testuko paragrafo guztiekin prozesu berbera egin ondoren, prest zaude gai horri buruzko eskema egiteko, horretarako hitz gako horiek

ANTOLATU beharko dituzu eta pentsatu beharko duzu zure eskemari eman nahi diozun itxura.

- Eskema **IDAZTEKO** atal bakoitzaren azalpena ematen dituen ideiak labur eta zehatz adierazi behar dira. Komeni da erabiltzea testuak erabiltzen dituen hitz berberak, eta elementu grafikoak txertatu ahal dira: marra, gezi, zenbaki edo bestelako ikur edo irudien bidez ideien arteko erlazioak adierazteko.

PENTSATU	○
AURKITU	○ Paragrafo bakoitzeko azpigaia zein den eta alboan, ezkerrean, arkatzez idatzi
HAUTATU	○ Paragrafo bakoitzeko ideia nagusiak eta bigarren mailako ideiak
ANTOLATU	○ Informazio garrantzitsua modu laburrean adierazten dituzten giltza-hitzak eta arkatzez azpimarratu
IDATZI	○ Informazioa eskema egoki batean; hasieran, folio zikin batean egin eta gero, zuzendu ondoren, garbira pasa.
	○ Gai, azpigai eta ideia nagusiak hizki LARRIZ (MAIUSKULAZ). Gainerako informazio guztia XEHEZ (MINUSKULAZ).

Hona hemen eredu bat:

- Hasierako paragrafoak eginak daude bakarrik, saiatu zuk egiten besteekin:


Azpigaia
(alboko hitza)

Paragrafo bakoitzeko ideia nagusiak aukeratuta, giltza-hitzak azpimarratuta

	<u>Elikagai motak</u>
Elikagaien funtzioa	Janari eta edari bakoitza, hau da <u>elikagai bakoitza</u> , <u>substantzia edo mantenugai jakin batzuek osaturik dago</u> . Mantenugai bakoitzak <u>zeregin jakin bat du gure gorputzaren osaketan eta funtzionamenduan</u> . Horregatik, janari batek beste batek baino hobeto erantzun diezaioke gorputzaren behar jakin bati. <u>Betetzen duten funtzioaren arabera</u> <u>elikagaiak hiru multzotan banatzen dira</u>
Elikagai eraikitzaileak	Gorputzak, hazten ari denean, zelula eta ehun gehiago sortzen lagunduko duten mantenugaiak beharko ditu. Eginkizun hori, <u>zelula berriak sortzea</u> , alegia, betetzen lagunduko duten mantenugaiak dituzten elikagaiei <u>eraikitzaile</u> deritze.
Eraikitzaileen funtzioa	Mantenugai hauen <u>eginkizuna</u> hazteko gorputzak behar dituen <u>zelulak eta ehun berriak sortzea</u> da. Baina hazitakoan ere, gorputzak izaten du zelula eta ehun berrien beharrik; esate baterako, ilea eta azazkalak luzatzeko,... Gainera, suntsitutako zelula zaharrak ordezkatzeko berriak osatu behar ditu. Horretarako, gure gorputzak <u>proteinak</u> dituzten elikagaiak behar ditu, hauek <u>baitira mantenugai eraikitzaile nagusiak</u> . Etxe bat eraikitzeko adreiluak behar diren bezala, proteinak behar ditugu gure gorputza eraikitzeko eta luzatzeko.
Eraikitzaileak zeintzu	<u>Proteinak dituzten jakiak</u> landare-jatorria nahiz animalia-jatorria izan dezakete. Babarrunak, <u>dilistak</u> , <u>babak</u> , <u>soja</u> , <u>txitxirioak</u> eta <u>fruitu lehorrak</u> , adibidez, <u>landare-jatorrikoak dira</u> , eta <u>esnea</u> , <u>esnekiak</u> , <u>arautzak</u> , <u>haragia</u> , <u>arraina</u> eta <u>urdaia</u> , berriz, <u>animalia-jatorrikoak</u> .
Eraikitzaileak non	Bestalde, lasterka egiteko edo hotz handia dagoenean gorputza berotzeko, energia emango dion erregai bat beharko du gorputzak. Eginkizun hori betetzen duten mantenugaiak dituzten elikagaiei <u>energetiko</u> deritze. Elikagai energetikoek bi eratako mantenugaiak izan ditzateke: karbohidratoak eta koipeak . 1. Karbohidratoak: Giharrek lan egiteko beharrezko energia ematen dute. Bi taldetan banatzen dira: almidoiak eta azukreak, biak landare-jatorria izanik. Patata, fruitu lehorrak, azukrea, arroza, garia, artoa, irinez egindako janariak,... dira karbohidrato gehien duten jakiak. 2. Koipeak: energia gehien ematen duten mantenugaiak dira. Koipe batzuk landare jatorriko elikagaletan daude: oliba-, kakahuete-, ekilore- eta arto-olioetan, esaterako; fruitu lehorretan, margarinan,... Beste batzuk, aldiz, animalia-jatorriko jakietan: zerri, behi, ardi eta bestelakoen gantzetan; esnean eta esnekietan, etab. Azkenik, hirugarren taldea ezinbestekoa da organismoak funtzionamendu zuzena izan dezan. Talde honetako mantenugaiak dituzten elikagaiei <u>erregulatzailerik</u> deritze. Garrantzitsuenak bitaminak, gatz mineralak eta ura dira. Kopuru txikitik behar izaten ditu gorputzak, ura lan ezik, ugari hartu behar izaten baitugu.


Txanela" tik hartuta (5. maila, 4. gaia)

- Horrela egin dezakegu testu honen informazioari dagokion eskema:



(http://arantzabela3zikloa2010-12.blogspot.com.es/2011_01_01_archive.html hartuta)

- Baita ere beste modu honetan egin dezakegu:



Orain zuri tokatzen zaizu testu honen eskema egitea:

LURRIKARAK EDO SEISMOAK

Lurraren barnealdean bat-batean askatutako energiaren ondorioz lurrazalean gertatzen diren dardara edo astinduak dira lurrikarak edo seismoak. Lurrazaleko bi bloke edo eremuren arteko talken edo lekualdatzeen eraginez sortzen dira.

Lurrikaretan askatutako energia lurrazalera hedatzen da, norabide guztietan uhin sismiko eran.

Lurrikara sortu den toki edo fokuari hipozentro (barneko gunea) esaten zaio. Hipozenrotik hurbilen den lurzoruko puntuari, berriz, epizentroa (goiko gunea) esaten zaio, eta hortxe gertatzen da astindurik bortitzena. Lurrikarek minutu gutxi irauten dute, gehienetan, eta badira segundo gutxian amaitzen direnak ere.

Ez lurrikara guztiak, ez lurrazaleko leku guztietan, lurrikaren ez dute maiztasun eta indar bera izaten: batzuk sumatu ere ez dira egiten; beste batzuik, sumatzen diren arren, ez dute kalterik eragiten; badira sumatzeaz gainera, kalte arinak sortzen dituztenak; eta baita kalte larriak eta suntsipen handiak eragiten dituztenak ere. Sumendiak ugariak diren lekuetan, maiz gertatzen dira lurrikarak, oso bortitzak gainera.

Txanela 6-tik hartuta.

